

EUSKARA BATZORDEAK 2013ko URRIAREN 21ean IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)
Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)
Jaione Iturbe and. (Udal Euskaltegia)
Iratxe Garmendia and. (AEK- GUGAZTE egit.)
Rosa Okariz and.
Edurne Atxikallende and (Oiz-mendi telebista)
Fernando Basterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi)

Idazkaria:

Bittor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 20:45

Ezin etorria zuritu dutenak:

Igone Olabarria and.
Iratxe Garmendia and. (AEK)
Agurtzane Renovales and. (Barrutia ikastetxea)
Anabel Gerrikabeitia and. (Mertzedede ikastetxea)
Ariane Ensunza and.

Aztergai nagusia: 2013-2017 eperako Plan Estrategikoaren zirriborria aztertzea (“Herritarrak oro har” esparrua eta hirugarren helburu estrategikoa: euskara elikatzea (esparruak: 9.- Kulturgintza / 10.- Komunikabideak / 11.- Teknologia berriak).

Plan Estrategiko berriaren zirriborria eratzeko orain arte egindako bidea azaldu ondoren, Euskara zinegotziak aipatu egin ditu aztertzeke dauden esparruak.



Beraz, “Herritarrak oro har” izendatutako esparru berria aztertzeari ekin zaio.

Erabakia:

1).- Aurreko batzarrean egindako ekarpenak oinarri, hurrengo ekintzak txertatzea “herritarra koro har” esparruko 8.1 neurrian (Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean) / 8.1.1. estrategian (sentsibilizazioa):

| EKINTZA | Ardurad | Eragileak / Laguntz |
|---|--------------|------------------------------------|
| Alderdi politikoei begirako lanketa (Plan Estrategikoa eta Administrazioako Erabilera Planaren informazioa; helburua, jakitun egotea eta programetan proposamenak txertatzea) | HNT1 HNT2 | Trebatz/itzultz Alderdi politik |
| Hauteskundeetan hautatutako kargu politikoei begirako lanketa (Plan Estrategikoa eta Administrazioako Erabilera Planaren informazioa; helburua, euren lanerako izango dituzten tresnak ezagutzea) | HNT1 HNT2 | Trebatz/itzultz Kargu politik. |

2).- Zirriborroan esparru horretarako azaltzen diren gainerako ekintzak ontzat ematea.

Jarraian, “Kulturgintza” esparruaren kasurako berdin jokatu da. Lehenengo batzordekideek zirriborroa aztertu dute eta gero eztabaidari ekin zaio.

Erabakia:

1).- Hurrengo ekintza txertatzea “Kulturgintza” esparruko 9.1. neurrian (kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu) / 9.1.2. estrategian (komunikazioa):

| EKINTZA | Ardurad | Eragileak / Laguntz |
|---|---------|--|
| Programazioan euskararen presentzia ziurtatzeko jarraipen gune teknikoak finkatu (Euskara, Kultura, Jaiak, Gaztedia, Hezkuntza) | HNT1 | Kultur Et. Zuz. Jai Arloko Ardurad Gaztediko Ardurad Hezkuntzako Ard. |

2).- Zirriborroan esparru horretarako azaltzen diren gainerako ekintzak ontzat ematea.



Ondoren, “komunikabideak” eta “teknologia berriak” deituriko esparruak aztertu dira:

Erabakia:

Zirriborroan esparru horietarako planteatutako ekintza zerrendak daudenean uztea eta ontzat ematea.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Esperanza Uriarte

Izp.: Euskara Teknikaria (HNT1)
Bittor Zarrabeitia

